



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 – 01476 ARESPALDITZA-AIARA

(ARABA)

Teléfono: 945399013 Fax: 945399331

Email: info@aiarakoudala.eus

www.aiarakoudala.eus

UDALBURUA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Lauren Uria Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Iraida Saenz de Lafuente and.

AIARAKO UDALAK 2018ko IRAILAREN 14an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko irailaren hamalauan, hamalauak direnean, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

EZ DA BERTARATU:

Josu Artetxe Arana jn.

IDAZKARIA:

M^a del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko uztailaren 18an eginiko osoko bilkuraren saioaren akta.- Ez du inork hitz egin, eta, beraz, akta hori aho batez onartu da.

2.- 2018 ekitaldiko udal-aurrekontua behin betiko onestea.- Jarrarian, Ogasunaren, Funtzio Publikoaren, Barne Erregimenaren eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2018ko irailaren 11n eginiko aldeko irizpenaren berri eman dio Udalbatzari. Hain zuzen, honela dio:

"Jarraian, P. J. I. jaunak aurkeztutako alegazioaren berri eman zaio Batzordeari. Alegazioa 2018rako udal honen aurrekontua hasiera batean onesteari egin zaio, dagokion espedientea jendaurrean aurkezteko epearen barruan.

Ondoren, Idazkaritzaren txosten-proposamenaren berri eman da, alegazio horren erantzunez. Hain zuzen, hauxe dio:

"2018 EKITALDIRAKO UDAL-AURREKONTUAREKIN LOTUTA P. J. I. JAUNAK EGINIKO ALEGAZIOARI ERANTZUNA.

IKUSI DA.- 2018ko uztailaren 10eko osoko bilkuraren akordioa, 2018 ekitaldirako udalbatza honen aurrekontu orokorra hasiera baten onesten duena.

IKUSI DA.- 2018ko uztailaren 20an ALHAOn (84. zk.) argitaratu zela erakunde honen 2018ko ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokorraren hasierako onespina eta espedientea jendaurrean jarri zela hamabost egun baliouduneko epean, iragarki hori ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun balioudunetik zenbatzen hasita.

IKUSI DA.- Espedientea jendaurrean jartzeko epe horretan idatzi bat aurkeztu duela P. J. I. I. jaunak (udaletxeko sarrera-zk.: 3059; 2018ko uztailaren 27a). Agiri horretan, honako hau adierazten du besteak beste:

"Udalbatzaren aurrean erreklamazio hau egiten dut:

Ez da aurrekontu-partidarik agertzen diru-bilketaren arduradunei ordaintzeko. (udal-eskumena da hori, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 106. artikuluko 2. atalean adierazten den moduan)...".

IKUSI DA.- Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren (Lurralde historikoko toki-erakundearen aurrekontuei buruzkoa) 17.2.b) artikulua ezartzen du aurrekontuaren aurkako erreklamazioa egin daitekeela honako

honengatik: "Legezko manua edo legebidezko beste edozein titulu dela bide erakundeari eska dakizkikeen betebeharrak betetzeko behar den kreditua alde batera uztea...". Hori da erreklamatzailerak alegatutako erreklamazioaren arrazoia.

IKUSI DA.- Aiarako Udaleko lanpostuen azterketan (Itzarri Consulting Gestión del Conocimiento SLL enpresak egin) agertzen da lanpostuen zerrenda egiteko jasotako informazioa, eta bertan jasotzen da besteak beste diru-bilketaren funtzioak egiten dituen postu bat.

AINTZAT HARTU DA 2018 ekitaldirako Aiarako Udalaren aurrekontu orokorrean 920.120000 aurrekontu-aplikazioa dagoela, diru-bilketaren funtzioa egiten duen pertsonaren ordainsariak ordaintzeko dena, besteak beste.

AINTZAT HARTU DA.- Funtzio Publikoaren, Barne Erregimenaren eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia 2018ko maiatzaren 30ean eginiko aldeko irizpena.

Udalbatzak honako erabaki hau hartzea proposatu du:

Lehena.- P. J. I. jaunak aurkeztutako alegazioa ezestea, azaldutako aintzat hartzeetan egiaztatu baita badagoela aurrekontu-partida diru-bilketaren arduradunari ordaintzeko.

Bigarrena.- Behin betiko onestea 2018 ekitaldirako Udalbatza honen aurrekontu orokorra, 2.228.193,63 eurokoa, diru-sarreraren zein gastuen egoerari dagokiona. Hona hemen kapituluaren laburpena:

KAPITULU	DIRU-SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK	ZENBATEKOA
	TULUKA	
	A) OHIKO ERAGIKETAK	2.228. 193,63 €
1	ZERGA ZUZENAK.....	679. 502,40 €
2	ZEHARKAKO ZERGAK.....	64. 000,00 €
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK.....	223. 164,54 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	1.244. 386,74 €
5	ONDAREZKO DIRU-SARRERAK.....	17. 139,95 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	0,00 €
6	INBERTSIO ERREALAK ETA HIRIGINTZA-JARDUERETATIK ERATORRITAKO BESTELAKO DIRU-SARRERAK BESTERENTZEA.....	0,00 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.....	0,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK.. ..	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00 €
	DIRU-SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.228. 193,63 €

KAPITULUA	GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA
	A) OHIKO ERAGIKETAK	1.977. 999,98 €
1	LANGILEEN GASTUAK	572. 986,82 €
2	ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	746. 333,96 €
3	FINANTZA-GASTUAK.....	2. 000,00 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	651. 179,20 €
5	KREDITU OROKORRA ETA BESTE EZUSTEKO BATZUK	5. 500,00 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	250. 193,65 €
6	INBERTSIO ERREALAK.....	180. 193,65 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.....	70. 000,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK.. ..	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00 €
	GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.228. 193,63 €

Hirugarrena.- Behin betiko onestea aurrekontuaren espedientean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua.

Laugarrena.- Behin betiko onestea lanpostuen zerrenda eta aurrekontuaren gainerako eranskinak (espedientean daudenak).

Bosgarrena.- Behin betiko onestea 2017-2018ko diru-laguntzen Plan Estrategikoa, 2018. urteari dagozkion diru-laguntzekin.

Seigarrena.- Behin betiko onetsitako aurrekontua argitaratzea, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluko 3. atalean aipatutako moduan.

Zazpigarrena.- Behin betiko erabakiarekin batera, erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zortzigarrena.- Aldi berean, espedientearen kopia bana igortzea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.

Arespalditzan, IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Batzordea jakinaren gainean geratu da eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, Udaltzaren onepenari eta transkribatutako erabaki-proposamenari buruzko aldeko txostena egitea, idatzitako moduan".

Lauren Uria Peña (EH-BILDU) zinegotzi jaunak hartu du hitza eta galdetu du botoa ematean aurrekontua bozkatzen ari diren.

Baietz erantzun zaio. Adierazi da aurrekontua osoko bilkurara ekarri dela berriro, hasierako onepenari alegazioa aurkeztu zaiolako eta hura ebatzi egin behar dela, eta, aldi berean, aurrekontua behin betiko onesteko berriazko erabakia hartzen dela.

Lauren Uria Peña (EH-BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du orduan abstenitu egingo dela, hasierako onepenean bezala.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta Nerea Goti Valle (EH-BILDU), Lauren Uria Peña (EH-BILDU) eta Esteban Hernando Landa (EH-BILDU) zinegotzi jaun-andreen abstentzioekin eta Iñigo Pinedo Vadillo (EAJ-PNV), José Antonio Bartolomé Pesquera (EAJ-PNV), Montserrat Angulo Solloa (EAJ-PNV), Susana Martín Benavides (EAJ-PNV), Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ), Iraida Saenz de Lafuente (AIARA BATUZ) zinegotzi jaun-andreen eta Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunaren aldeko botoekin, honako erabaki hau hartzea adostu da:

Lehenen.- P. J. I. jaunak aurkeztutako alegazioa ezestea, azaldutako aintzat hartzeetan egiaztatu baita badagoela aurrekontu-partida diru-bilketaren arduradunari ordaintzeko.

Bigarrena.- Behin betiko onestea 2018 ekitaldirako Udaltzaren honen aurrekontu orokorra, 2.228.193,63 eurokoa, diru-sarreraren zein gastuen egoerari dagokiona. Hona hemen kapituluaren laburpena:

KAPITULU	DIRU-SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK TULUKA	ZENBATEKO
	A) OHIKO ERAGIKETAK	2.228. 193,63 €
1	ZERGA ZUZENAK.....	679. 502,40 €
2	ZEHARKAKO ZERGAK.....	64. 000,00 €
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK.....	223. 164,54 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	1.244. 386,74 €
5	ONDAREZKO DIRU-SARRERAK.....	17. 139,95 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	0,00 €
6	INBERTSIO ERREALAK ETA HIRIGINTZA-JARDUERETATIK ERATORRITAKO BESTELAKO DIRU-SARRERAK BESTERENTZEA.....	0,00 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.....	0,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK.. ..	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00 €
	DIRU-SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.228. 193,63 €

KAPITULUA	GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK KAPITULUKA	ZENBATEKO
	A) OHIKO ERAGIKETAK	1.977. 999,98 €
1	LANGILEEN GASTUAK	572. 986,82 €

2	ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	746. 333,96 €
3	FINANTZA-GASTUAK.....	2. 000,00 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	651. 179,20 €
5	KREDITU OROKORRA ETA BESTE EZUSTEKO BATZUK	5. 500,00 €
	B) KAPITAL-ERAGIKETAK	250. 193,65 €
6	INBERTSIO ERREALAK.....	180. 193,65 €
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK.....	70. 000,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK..	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00 €
	GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.228. 193,63 €

Hirugarrena.- Behin betiko onestea aurrekontuaren espedientean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua.

Laugarrena.- Behin betiko onestea lanpostuen zerrenda eta aurrekontuaren gainerako eranskinak (espedientean daudenak).

Bosgarrena.- Behin betiko onestea 2017-2018ko diru-laguntzen Plan Estrategikoa, 2018. urteari dagozkion diru-laguntzekin.

Seigarrena.- Behin betiko onetsitako aurrekontua argitaratzea, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluko 3. atalean aipatutako moduan.

Zazpigarrena.- Behin betiko erabakiarekin batera, erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zortzigarrena.- Aldi berean, espedientearen kopia bana igortzea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.

3.- Emakumeen Gelaren erabilera arautzen duen udal-ordenantza.- Jarraian, Emakumeen Gelaren erabilera arautzen duen udal-ordenantzari buruzko behin betiko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udaltzari. Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2018ko irailaren 11n eginiko saioko ekarpenak sartu ondoren egin zen proposamena eta aldeko txostena jaso zuen. Hain zuzen, honako hau da erabaki-proposamena:

"Ikusi da Aiarako Udalaren Emakumeen Gelaren erabilera arautzen duen udal-ordenantzarekin lotuta eginiko kontsultaren emaitza eta ikusi da gaia dela-eta udal-zerbitzu eskudunek eginiko proiektua, eginiko ekarpenak kontuan hartu dituen.

Aintzat hartu da Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2018ko martxoaren 13an eginiko irizpena eta Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2018ko irailaren 11n eginiko irizpena, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikulua betez, osoko bilkurari honako erabaki hau hartzea proposatu zaio:

ERABAKIA

LEHENENGOA. *Hasiera batean onestea Emakumeen Gelaren erabilera arautzen duen udal-ordenantza. Hain zuzen, honela dio:*

"EMAKUMEEN GELAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZA

Aiara Berdintasunaren Alde (ABA) Foroak proposatu zuen Emakumeen Gela martxan jartzea; izan ere, emakumeentzako eta berdintasunerako espazio fisiko bat edukitzeko premia zegoela ikusi zen. Hori horrela, Emakumeen Gelak espazio dinamiko eta irekia izan nahi du, enpatia sentitzeko, ikasteko eta prestatzeko elkargunea, ahalduntze-sareak sortzeko espazioa, emakumeen berdintasuna, askatasuna, parte-hartzea eta presentzia sustatzeko espazioa.

Aiarako Udalak, Foroaren proposamenari erantzunez, Emakumeen Gela jarri du abian eta Foroarekin batera kudeatuko du.

Araudi honen helburua da lokalaren erabilera eta kudeaketa-prozesuak zehaztea, eta, horretarako, honako hau erabakiko da: gela erabil dezaketen erakunde, pertsona eta taldeen motak, haien ezaugarri eta jardueren arabera; sarbide-sistemak; ordutegiak; materialaren eta espazioaren erantzukizuna; eta koordinazio-eta kudeaketa-organoa.

I. KAPITULUA. ESPAZIOAREN, HELBURUAREN ETA ERABILERAREN DEFINIZIOA

1. artikulua.- Emakumeen Gela

Emakumeen Gela espazioa Aiarako Udalak eta Aiara Berdintasunaren Alde (ABA) Berdintasunerako Foroak kudeatuko dute. Udala da espazioaren titularra, baina helburua ez da Udalak antolatutako jarduerak soilik egitea; aldiz, kudeaketa partekatua eta parte-hartzailearen sistemaren bitartez, emakumeen esku jarri nahi da baliabide hori, bizitzako arlo guztietan beren lekua indartzen laguntzeko. Hala, helburu hori lortzeko asmoz, topaketak, elkartasun- eta truke-sareak, prestakuntza- eta ikerketa-saioak antolatuko dira.

2. artikulua.- Helburua

Emakumeen Gelaren helburua da emakumeen topaketa, eztabaida eta gogoetarako espazio bat izatea, eta, halaber, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokan erreferentziazko leku izatea. Hala, bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua duten politika, programa eta proiektu guztiak ikusgarri bihurtuko dira.

Emakumeen Gelaren oinarria feminismoa da, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako eraldaketa-tresna.

3. artikulua.- Elkarre erabiltzaileen motak

Emakumeen Gela erabili ahal izango du edozein pertsona, erakunde edo taldek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak antolatzen baditu, edo bere xedeen eta antolakuntzaren artean genero-ikuspegia badu, baldin eta ezarritako oinarriak eta jarduera-ildoak betetzen baditu.

II. KAPITULUA: JARDUERA-ILDOAK

4. artikulua.- Jarduera-ildoak.

Honako hauek dira EMAKUMEEN GELAREN jarduera-ildoak:

Bizitzaren arlo guztietan emakumeen parte-hartzea eta elkartegintza sustatzea.

Berdintasun-politika eta -programen diseinua, garapena eta ebaluazioa bultzatzea.

Emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko lan egitea, gizartean duten kokapena hobetuz.

Berdintasunari buruzko prestakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea.

Berdintasunaren arloan ikerketa, berrikuntza eta ikuspegi berriak bultzatzea.

Gai eta erakunde guztietan genero-ikuspegia txertatzea.

III. KAPITULUA: ESPAZIOAREN DESKRIBAPENA ETA ERABILERA

5. artikulua.- Espazioaren deskribapena:

Emakumeen Gela espazio bakarra da eta han, hitzaldiak, bilerak, topaketak, erakusketak, antzerkiak, kontzertuak eta, oro har, genero-ikuspegia txertatzen duen edozein jarduera antola daiteke.

Horretarako, Gelan aulkiak, mahaiak, sofa eta armairuak daude, materiala gorde ahal izateko. Gainera, panelak ere badaude argazkiak zintzilikatze eta gainerako euskarriak ere bai, informazioa ikusgarri bihurtzeko asmoz.

Horrenbestez, Emakumeen Gela erabiltzailearen premia guztietara egokitzen da, gustura egon daitezela lortzen ahaleginduz.

Udala arduratuko da espazioa garbitzeaz. Hala ere, lokala zegoen moduan utzi behar da.

6. artikulua.- Erabilera motak eta eskaerak

1. Emakumeen Gelan antolatutako ekintzak erakunde, pertsona eta talde desberdinek antola ditzakete, baldin eta haren erabilera-betebeharrak betetzen badituzte.

2. Emakumeen Gelaren erabilera-eskaera udaletxeko erregistroan aurkeztuko da jarduera egin baino 7 egun lehenago gutxienez. Eskaera horretan, honako hau zehaztuko da: erakundearen, pertsonen edo taldeen datuak (ordezkaria, IFK edo NAN, helbidea eta telefonoa), jardueraren deskribapena eta helburuak, data eta ordutegia. Gainera, materialen bat behar bada (proiektorea, soinua), eskaeran bertan emango da horren berri. Udalak beharrezkoa dela uste duen edozein agiri eskatu ahal izango du.

3. Era berean, Udalak 48 ordu izango ditu Gela erabil dezaketen edo ez erantzuteko, dela okupatuta dagoelako dela betebeharrak betetzen ez direlako. Erantzuna eskaeran agertzen den posta elektronikoko helbidea edo telefonoa baliatuz emango da.

4. Berdintasun Foroan parte hartzen duten erakundeek ez dute erabilera-eskaera erregistroan aurkeztu beharko. Haientzat nahikoa izango da berdintasun-teknikariari idaztea edo deitzea, jarduera eta data zehaztea eta espazioa libre dagoela baieztatzea. Nolanahi ere, proiektorea edo soinua behar badute, udal-erregistroan eskatu beharko dute.

7. artikulua.- Ordutegia.

Emakumeen Gela astelehenetik igandera erabil daiteke, goizetik gauera. Hala ere, beste ordutegi batean erabili nahi bada eta arrazoituta badago, erabili ahal izango da.

8. artikulua.- Espazioaren erabileraren koordinazioa.

Espazioa erabiliko duenaren erantzukizuna izango da erabilera egokia egitea eta koordinazio eraginkorra sustatzea.

IV. KAPITULUA: ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA

9. artikulua.- Kudeaketa

Emakumeen Gela Udalaren eta ABA Berdintasunerako Foroaren artean kudeatuko da.

Espazioaren jarraipena eta ebaluazioa Foroan egingo da eta urtero bilera irekiak deituko dira Gelaren erabilera baloratzeko eta ekarpenak jasotzeko. Biler horietan, Emakumeen Gelaren urteko memoria aurkeztuko da.

10. artikulua.- Dinamizazioa

Emakumeen Gelaren sarbidea, koordinazioa eta dinamizazioa Udaleko berdintasun-teknikariaren erantzukizuna izango da. Berdintasun-teknikariak egingo du haren plangintza, ebaluazioa eta koordinazioa. Haren eginkizuna izango da bileretan hartutako erabakiak abian jartzea eta koordinatzea, araudian aurreikusitako erabakiak hartzea eta, oro har, espazioa ondo erabiltzeko erabakiak hartzea, bai eta urteko memoria egitea ere.

V. KAPITULUA.- ERABILERA-ESKUBIDEAK ETA -BETEBEHARRAK

11. artikulua.- Erabilera-eskubideak eta -betebeharrak

Espazioaren erabiltzaileek horretarako eskubidea dute ezarritako ordutegi eta daten barruan.

Elkarte, erakunde edo pertsona batek jarduera bat egiteko Gela erabiltzea eskatzen duen bakoitzean, pertsona bat izendatuko du arduradun gisa.

Espazioaren erabiltzaileak haren araudia onartzen du, Gelaren funtzionamenduaren oinarri gisa.

Lokala eta baliabideak erabiltzen dituen edonork bete beharko ditu bizikidetzara-arauak: batetik, modu egokian erabili beharko du, eta, bestetik, jardueran parte hartzen dutenek baliabidea ondo erabiltzearen ardura hartuko dute, eta sor daitezkeen kalteak konpontzeko konpromisoa hartu.

Espazioaren erabiltzaileek haren funtzionamendu egokia sustatu behar dute.

Espazioaren baliabide eta materialak Emakumeen Gelan erabiliko dira eta ezingo dira handik atera, horretarako baimen berezia izan ezean.

Udala ez da Gelan gordeko diren elkarte, erakunde edo pertsonen materialarekin gerta daitekeenaren erantzulea izango".

BIGARRENA. *Udal-ordenantza hori jendaurrean jartzea, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta Udalaren iragarki-oholean argitaratuz, hogeita hamar eguneko epean, erreklamazioak edo iradokizunak aurkez daitezzen. Erreklamazio edo iradokizun horiek Udalbatzak ebartziko ditu.*

HIRUGARRENA. *Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada jendaurrean jartzeko epean, behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da.*

Arespalditzan. ALKATEA.- ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez erabaki dute erabakiaren behin betiko proposamena onestea, idatzita agertzen den moduan.

4.- Laguntza ekonomikoa emateko proposamena errefuxiatuei laguntzeko Himaya elkarteari. Jarraian, Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2018ko irailaren 11n eginitako saioan egindako irizpenaren berri eman zaio Udalbatzari. Hain zuzen, honako hau dio:

"Batzordeburu andreak adierazi du bere asmoa dela proposatzea Aiarako Udalak Himaya elkarteari ekarpena egitea, 2.500,00 euroko diru-laguntza zuzen bat emanaz Lankidetzeta eta Garapena partidatik, GKE horrekin lankidetzan jarraitzeko asmoz errefuxiatuei laguntzen.

Zuzenean emateko diru-laguntza baten proposamena denez, ohiko prozedurari jarraitu gabe, hau da, norgehiagoka, eta ez denez aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendun bat, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan ezarritakoaren bat etorritz, deialdi publikoa egitea zailtzen duten arrazoiak justifikatu behar dira.

Nerea Goti zinegotzi andreak adierazi du diru-laguntzaren justifikazioari publizitatea eman behar zaiola, laguntza baliatu duten proiektuak ezagutarazteko.

Iraida Sáenz de Lafuente zinegotzi andreak adierazi du diru-laguntza justifikatu beharko duela, beste edozein erakundek bezala.

Espedientean jasota dago Himaya proiektuaren justifikazio-txostena. Hain zuzen, honako hau dio:

"HIMAYA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA

Aiarako Udalak proposatu nahi du udal-aurrekontuko Lankidetzeta eta Garapena partidako 2.500 € ematea Himaya elkarteari, GKE horrekin lankidetzan jarraitzeko asmoz errefuxiatuei laguntzeko.

Diru-laguntzei buruzko legean, zuzenean emateko kasuen artean, arauaren 22.2.c) artikuluan hau ezartzen da: "c) Con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública."

Horrenbestez, proposamen hau ohiko prozeduraren, hau da, norgehiagokaren, aurrean salbuespen bat denez, interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiak edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk justifikatzeko txostena behar da.

Himaya proiektuaren interes publikoa eta humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiaren justifikazioa.

2016an mugak itxi eta migratzaile asko Grezian geratu zirenetik, hainbat GKEk eta elkarte independente familia zaurgarrienak lokalizatzen eta eremu horietatik edo kaletik ateratzen jarduten dute, dohaintzen bidez ordaindutako alokairuko etxeetan ostatu emateko.

Horixe da Himayaren kasua. 2016ko maiatzean hasi zen lan hori egiten, Greziako iparraldean, Mazedoniako mugatik hurbil eta Idomeniko errefuxiatuen eremuan. Azken hori hilabete horretan bertan itxi zen indarrez.

Amurriotik elkarte horren lan humanitarioan lankidetzan aritzera joan zen pertsonak zuzenean ezagutzen du elkarte hori, eta haien lana eta independentzia egiaztatu ondoren, etxetik eramandako funtsak familia bat babesteko inbertitzea erabaki zuen, etxe bat eskura zezaten eta errefuxiatuen eremuko bizitza gogor hura utz zezaten.

Horrela, eta zuzeneko harreman baten bitartez Udalaren asmoa egoera hori arintzeko sentsibilizatzea eta dirua biltzea dela jakinda, proiektu hori finantzatzeko eta babesteko ideiarekin jarraitzeko aukera proposatzen da.

Idea hori buruan, Aiaraldean ekimen handi txiki bat sortu zen. Egun osoko jardunaldi baten bitartez, ahal bezain diru gehien biltzeko asmoa planteatu zen elkarte txiki bati bidaltzeko; hain zuzen, elkarte hori, gaur egun, GKE bat da: HIMAYA. Elkarte independente bat da, eta landan bertan egiten duen lanari buruzko informazio bikainak daude. Arabieraz "abegi egitea" esan nahi du.

Antolakuntzan, ekitaldietan, aurretik eginiko sentsibilizazio-lanean, jardunaldian bertan nahiz ondoren parte hartu duten guztiek beren borondatez parte hartu dute.

Horrenbestez, eta, laburpen gisa, hauek dira Himaya proiektuari laguntza emateko interes publikoa eta humanitarioa egiaztatzeko dugun arrazoiak.

- *Himaya elkarte Greziako errefuxiatuei etxebizitza bat eskuratzen saiatzen diren elkarte gutxietako bat da. Etxebizitza izateko eskubidea, hain zuzen ere, funtsezko eskubidea da pertsonen bizitza duina bermatzeko.*
- *Gainera, errefuxiatuekin zuzenean eta independenteki lan egiten duen elkarte bat da, bitartekaritzarik gabe.*
- *Aiaraldeko eta Aiarako pertsonak proiektuan zuzenean parte hartzeak errefuxiatuen egoera hurbiltzen du gure udalerrira, Aiarako biztanleak zuzenean sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta parte hartzea lortuz.*
- *Une oro egon da bermatuta genero-ikuspegia txertatzea proiektu osoan, eta, beraz, proiektuaren ikuspegi eta erantzun integral eta osoa ematea lortzen da.*

Batzordea jakinaren gainean dago eta aho batez erabaki du Udalbatzak HIMAYA GKEri 2.500,00 euroko diru-laguntza zuzen bat ematearen aldeko txostena egitea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2.c) artikularen babesean".

Udalbatza jakinaren aginean dago, eta Udalbatzako kideek aho batez erabaki dute honako hau:

Lehenengoa. 231.481003 aurrekontu-aplikazioaren kargura ("LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO LAGUNTZAK") 2.500,00 euroko diru-laguntza ematea HIMAYA GKEri, GKE horrekin lankidetzan jarraitzeko asmoz errefuxiatuei laguntzen, aurkeztu beharreko memoriaren arabera.

Bigarrena.- Erakunde interesdunari jakinaraztea diru-laguntza hori emango zaiola.

Hirugarrena.- Diru-laguntza ordainketa bakarra eginez ordainduko da, funtsak emate gisa, jarduera justifikatu aurretik. Ordainketa egin aurretik, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela dioen egiaztagiria aurkeztu beharko du Udalean.

Laugarrena.- HIMAYA GKEk diru-laguntza eman den urtearen hurrengo urtarrilaren 31 baion lehen aurkeztu beharko du Aiarako Udalaren erregistro orokorrean honako dokumentazio hau:

- Udal honek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publikoek nahiz pribatuen eskutik jasotako diru-laguntza guztien zinpeko deklarazioa.
- Erakundeko idazkariaren ziurtagiria, Gobernu Organoak diru-laguntza onartzeko hartutako erabakia egiaztatzen duena.
- Jardueraren memoria, xehatutako programak eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu osoa, eginiko jardueraren arabera xehakaturata.
- Gastuen frogagiriak: Gastuak faktura bidez eta merkataritza- eta zuzenbide-trafikoan baliozkoak diren edo administrazio-eraginkortasuna duten frogagiri baliokideen bidez egiaztatuko dira.
- Diru-laguntza eman zen xedea bete dela dioen ziurtagiria eta emandako diru-laguntzen baturak jardueraren kostua gainditzen ez dutela dioten egiaztagiria.

5.-Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelako laguntzaile-zerbitzua finantzatzeko 2018 ekitaldian.- Jarraian, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2018ko irailaren 11n egindako saioan egindako irizpenaren berri eman zaio Udalbatzari. Hain zuzen, honela dio:

"Batxordeari jakinarazi zaio Aiarako Udalaren eta ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko.

Jakinarazi da akats bat dagoela antzeman dela hitzarmenaren hirugarren hizpaketan; izan ere, 2018rako laguntzailearen ekarpen ekonomikoa 21.387,24 eurokoa da eta ez 20.990,28 eurokoa, agertzen zen moduan. Ondorioz, 2018rako ekarpen osoa 57.587,51 eurokoa da eta ez 57.190,55 eurokoa.

Hitzarmenaren proposamenaren testua, antzemandako akatsa zuzendu ondoren, honako hau da:

"AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN PROPOSAMENA 2018rako, ETXAURREN IKASTOLAKO LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOKO ZERBITZUA (PSIKOLOGOA) ETA BI URTEKO GELAKO ZERBITZUA (LAGUNTZAILEA) FINANTZATZEKO.

Aiarako Udalean,
BILDU DIRA
Alde batetik,
Bestetik,

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki-erakunde horren izenean eta ordezkari gisa, horretarako gaitasuna eta eskumena duena Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean oinarrituta.

Bigarrena, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen (IFK: G01118769) izenean eta ordezkari gisa.

Bi aldeek lankidetzahitzarmen hau egiteko eta betetzeko gaitasun juridiko osoa aitortzen diote elkarri, eta ondore horretarako

ADIERAZTEN DUTE

I.- Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak gizartearen eta hezkuntzaren arloan lan handia egiten duela haren erreferentziatzko ikastetxea den Etxaurren Ikastolak egiten duen hezkuntza-lana osatzeko, hobetzeko eta zabaltzeko, eta, horretarako, Aiarako Udalaren babesa duela.

II.- Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteak egiten duen funtzio nagusietako bat, Aiarako Udalaren laguntza ekonomikoarekin, hain zuzen ere, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren zerbitzua bermatzea dela, horiek garatzeko beharrek teknikiariak kontratatuz (psikologo bat eta laguntzaile bat).

III.- Ikusi da aho batez uste dela ezinbestekoa dela II. puntuan deskribatutako zerbitzua ematen jarraitzea. Hortaz, Aiarako Udalak, Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearekin ados jarrita, elkarte horri laguntza ekonomikoa erregulatzea ebatzi du puntu horretan deskribatutako xederako, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearen artean 2018ko urteko diru-laguntza erregulatzen duen hitzarmen honen bitartez.

IV.- Aplikagarria den legedia zehazki betez, eta toki-erakundeek lankidetzahitzarmenak izenpetzeko gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzahitzarmen hau formalizatu dute, honako hauek betetzera behartuz:

HIZPAKETAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen helburua da ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA diruz laguntzea, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea) kontratatu ahal izateko 2018an; izan ere, bi zerbitzu horiek izatea ezinbestekoa da Aiarako Etxaurren Ikastolak zerbitzua ematen dien eskola-komunitatearen gizartearen eta hezkuntzaren arloko arreta egokia emateko.

Bigarrena: Hitzarmen honetan zehazten da AIARAKO UDALAREN eta ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN arteko lankidetzaren 2018rako, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeari dagokionez, honako funtzio hauek egiteko:

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa):

- **Irakasleekin:**
 - Laguntza-gelako koordinatzailea izatea, ikastetxeko orientatzailearekin batera.
 - Logopedarekin koordinazioa egitea.
 - Koordinazioa egitea PTrekin.
 - Koordinazioa egitea Berritzeguneko orientatzailearekin.
 - Ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko asmoz, psikologoa astean behin koordinatuko da ikastetxeko irakasleekin eta PTarekin.
 - Irakasleen prestakuntza eskaintzea (emozioak, gatazkak ebaztea).
 - Orientazio psikologikoak ematea irakasleei, bai kasu zehatzetarako, bai gelako ikasle guztientzat oro har.
 - Tutoretzetan lan egiteko materiala erraztea (arloan afektiboan, emozioen arloan, arlo psikologikoan...).
 - Irakasleekin batera ikasleen jarraipena egiteko bilera guztietan parte hartzea.
- **Ikasleekin:**
 - Behatzea, diagnostikoa egitea, esku hartzea (beharrezkoa izanez gero) eta ikasleen jarraipena egitea (eremuko orientatzailearekin koordinatuta).
 - Ikasleak orientatzea.
 - Proba psikologikoak egitea bost urteko gelako ikasleei, lehen hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailako ikasleei eta behar duten ikasleei.
- **Familiekin:**
 - Familiei arreta zuzena ematea.
 - Orientazio-lanak egitea.
 - Gurasoentzako hitzaldiak antolatzea eta koordinatzea (sexu-hezkuntza afektiboa, gatazkak ebaztea...).
- **Beste funtzio batzuk:**
 - Zuzendaritza-taldeko kidea, irakasle ez den kide gisa.
 - Durangon Amara Berriko zuzendaritza-taldeen bileretan parte hartzea.
 - Amara Berriko topaketetan parte hartzea.
 - Berritzeguneko eskaintako prestakuntza-saioetan parte hartzea.

Bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea):

- Ikasleen higie- eta hezkuntza-beharrizanei erantzutea.
- Beharrezko afektibo eta motorrei erantzutea.
- Irakasleei beren hezkuntza-proiektuan laguntzea, bai ikasgelan bai kanpoko jardueretan (jolastokian, psikomotrizitate-gelan, ikus-entzunezkoak).
- Pixoihalak aldatzea eta konketa eta komuna erabiltzen hastea.
- Oinarrizko funtzioak irakastea: orrazten; zapatak, batak eta jaka janzten; paperontzia erabiltzen; jolas eta lan egin ondoren ikasgela jasotzen.
- Autonomia lantzea eta bazkalorduan ohitura egokiak irakastea (ondo esertzen, mahai-tresnak erabiltzen, eskuak eta ahoa garbitzen).
- Ikasleak siestarako prestatzea eta lo hartzen duten arte lagun egitea.

Elkarlanaren helburua luzerakoa denez, bi aldeek adierazten dute konpromisoa dutela elkarlanean aritzeko aurten, eta abendurako, hurrengo urterako berritzea negoziatzeko.

Hitzarmena indarrean dagoen urteko abendurako, Aiarako Udalak hura berritzearen inguruan erabaki bat hartuko du, alde zuzenetik hurrengo urterako proposamena eta baldintzak aztertuta. ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEARI galdetuta zehaztu eta proposatuko dira, kalterik egin gabe ondoren zehaztu daitekeenari, bukatutako urteari dagokion dokumentazio hitzartua aztertu ondoren (ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAK bidalia), ezarritako epean.

Zerizan horrekin, hitzarmen hau 2018rako sinatzen da, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epealdirako.

Hirugarrena: Aiarako Udalak ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAri emateko onesten duen urteroko ekarpen ekonomikoa dagokion udal-aurrekontuetan islatuko da, eta dagokion urteroko hitzarmenerako hitzartutako zifra bera izan beharko da. Hilero ordainduko da eskatutako kopurua, elkarteak zerbitzuko bi langileen nominak ordaindu ditzan: laguntza psikopedagogikoko zerbitzuko psikologoa eta bi urteko gelako zerbitzuko laguntzailea.

2018ari dagokion ekarpen ekonomikoa hau izango da:

Laguntza psikopedagogikoko zerbitzuko psikologoa (1.500,00 € kontsignatuta balizko bajetarako)	36.200,27 €
Bi urteko gelako zerbitzua (1.500,00 € kontsignatuta balizko bajetarako)	21.387,24 €
2018ko EKARPENA, GUZTIRA:	57.587,51 €

2018ko hitzarmenean kontsignatutako 3.000,00 €-ko kopuru osoa, bi lanpostuetako balizko bajak estaltzekoa, beharrezkoa bada, osorik erabili ahal izango da lanpostuetako bateko gastua estaltzeko, ziurtatzen bada ez dela beharko kontsignatu zen lanposturako.

Balizko bajak estaltzeko kontsignatutako kopurua ez balitz nahikoa izango, Aiarako Udalak aztertuko du gertaerari aurre gitea, aurrekontuek aukera ematen badute.

Laugarrena: Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAK Aiarako Udalaren sustapena aipatuko du diruz lagundutako bi zerbitzuen inguruko informazioak hedabideetan zabaltzen dituenean.

Bosgarrena: ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAK agiri hauek aurkeztu beharko ditu, diruz lagundutako urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, Aiarako Udaleko erregistro orokorrean:

Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako diru-laguntza guztien aitortpena, bai erakunde pribatu eta bai publikoetatik jasotakoak.

Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

c) Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueraren inguruko agiri hauek:

- Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarrereren balantzea, hauen kopiarekin: ekitaldi horretan bi langileei ordaindutako nomina guztiak.
- TC-1 eta TC-2 agirien kopiak.
- Diruz lagundutako urte naturalaren Jardueren Memoria.
- Egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko deklarazioa.

Eta ados daudela jasota gera dadin, bi aldeek lankidetzeta-hitzarmen honetako bi aleak sinatu dituzte, zuzenkizun, ezabapen eta zuzenketarik gabe, agiri hau osatzen duten orri guztietan, eta hura betetzeko konpromisoa hartu dute, goiburuan jasotako tokian eta egunean.

AIARAKO UDALEKO
ALKATE-UDALBURUAK
Sin..-

Nire aurrean, idazkaria. Sin..-

ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEKO
LEHENDAKARIAK
Sin..-

Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du Udalbatzak erabaki hau hartzearen aldeko txostena egitea.

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN arteko lankidetzahitzarmena, Etxaurren Ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua (psikologoa) eta bi urteko gelako zerbitzua (laguntzailea) finantzatzeko 2018 ekitaldirako.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta bertaratutako Udalbatzako kideek, aho batez, erabaki dute 2018ko irailaren 11ko bilkuran Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak emandako irizpena onestea, idatzita dagoen moduan.

6.- Aiaraldea Koop Elkarte: 2018rako hitzarmen-eskaera:- Jarraian, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2018ko irailaren 11n egindako saioan egindako irizpenaren berri eman zaio Udalbatzari. Honela dio:

“Jarraian, Batzordeari Aiarako Udalaren eta AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN (LEHEN INFO-AIARALDEA KULTURA ETA KOMUNIKAZIO ELKARTEA) arteko lankidetzahitzarmenaren proposamenaren berri eman zaio, 2018 ekitaldian euskarazko tokiko komunikabideak sustatzeko eta finantzatzeko. Deialdiarekin batera atxiki da.

Hitzarmenaren proposamenaren testua hau da:

“AIARAKO UDALAREN ETA AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO 2018rako HITZARMENA, EUSKARAZKO TOKIKO KOMUNIKABIDEAK SUSTATZEKO ETA FINANTZATZEKO.

AIARAKO udaletxean, 2018ko.....(e)(a)n

BILDU DIRA

Alde batetik,....., Aiarako Udaleko alkate-udalburua, NAN zenbakia duena, erakundearen ordezkari, Aiarako Udaleko idazkariak lagunduta, (r)ekin, ekitaldiaren fede emateko.

Bestetik,....., AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEko presidentea,NAN zenbakia duena, erakunde horren izenean, F-01468248 IFK zenbakiarekin.

Bi aldeek gaitasun juridiko osoa eta lankidetzahitzarmen hau emateko eta betetzeko jarduteko gaitasun osoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako,

HAU ADIERAZTEN DUTE

Etorkizuneko Informazioaren Gizartean, oso garrantzitsua da komunikazio-espazio hurbilak irabaztea euskararentzat, are gehiago aintzat hartuta komunikazioak eta komunikabideek hizkuntza normalizatzeko duten garrantzia.

Hain zuzen ere, AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA irabazi-asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko kooperatiba da (2017ra arte, Info-Aiaraldea Kultura eta Komunikazio Elkartearen izan zen, eta legezko bideetatik, elkarte zena kooperatiba izatera subrogatu da) eta Aiarako eskualdean euskarazko komunikazioa sustatzeko sortu zen. Erakunde horren helburua da eskualde honetan euskarazko komunikazioa eta komunikazio-jarduerak martxan jartzea eta garatzea, hala komunikazioaren arlo tradizionalak nola berritzaileak landuz, inolako irabazi-asmorik gabe, eta administrazioekin eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalekin elkarlanean.

Helburu horiek lortzeko AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEak eta AIARAKO UDALAK euskarazko tokiko komunikabideak sustatzeko eta babesteko konpromisoa adierazten dute, bereziki AIARALDEA HEDABIDE TALDEAK sustatzen eta kudeatzen dituenak, www.aiaraldea.eus webgunea

(“Aiaraldea Gaur” deitutakoa) eta “Aiaraldea Hemen” hamabost egunez behingo argitalpena; izan ere, komunikabide horien bidez hizkuntza-normalizazioa sustatzen da, eta AIARAKO udalerrria horren onuradun da.

AIARAKO Udalak udalerrri-mailako interes publikoko proiektutzat jotzen du. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak “gizarte-ekimen” izaera aitortu dio kooperatibari.

Hala, erakundeek euskarazko komunikabideak sustatzen duten inplikazioa gauzatzeko, bi aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatu dute. Edukia jarraian jasotako da:

KLAUSULAK

Lehenengoa: *Hitzarmen honetan 2018. urterako AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN eta AIARAKO UDALAREN arteko lankidetzaren zehazten da, euskarazko komunikabideei dagokionez. Elkarlanaren helburua luzerakoa denez, bi aldeek adierazten dute konpromisoa dutela elkarlanean aritzeko aurten, eta urtea amaitzerakoan, hurrengo urterako baldintzak negoziatzeko.*

Urte bakoitzeko lehen 3 hilabeteetan, Aiarako Udalak hitzarmena berritzearen inguruan erabakiko du, aurretik dagokion Informazio Batzordeak aztertuta bukatutako urteari dagozkion agiriak, eta urte horretako baldintzak, Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak bidaliko dizkionak.

Zerizan horrekin, hitzarmen hau 2018rako sinatzen da, 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko abenduaren 31ra arteko epealdirako.

Bigarrena: *Hitzarmen hau sinatzen denetik, AIARAKO Udalak eskumena izango du AIARALDEA HEDABIDE TALDEAREN jarduerara eta kontu ekonomiko guztien berri izateko.*

Horretarako, eta bi aldeen arteko harremana eta elkarlana iraunkorra izateko asmoarekin, Aiarako Udalak eskubidea izango du finantzaketa zehaztuaren berri izateko, baita komunikazio-taldearen urteko balorazio eta planen berri izateko ere.

Era berean, hitzarmen hau sinatzen duten aldeetako batek eskatzen badu, bi aldeak bilduko dira, hitzarmenaren edukien jarraipena egiteko edo harekin lotutako beste helbururen baterako.

Hirugarrena: *AIARAKO Udalak AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEARI honako ekarpen ekonomiko hau egiteko konpromisoa hartzen du:*

2018. urtean: 0,70 €/biztanleko.

Ekarpen ekonomikoaren kopurua urtero kalkulatu da, EUSTATEK argitaratutako biztanleen azken datuen arabera. Kopuru horri KPIaren gehikuntza proportzionala aplikatu zaio urtero.

2018. urterako, AIARAKO Udalak 2.040,30 euroko ekarpena egingo dio komunikazio-taldeari, 2017ko EUSTATEN datua 2.883 biztanlekoa baita, eta KPIaren urteko gehikuntza % 1,1ekoa.

Urteko ekarpen ekonomikoa ordainketa bakarrean ordainduko da, ahal bada dagokion urteko lehen hiruhilekoan. Ekarpeneko ekonomikoa AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN kontu korrontean diru-sarrerara eginez gauzatuko da (Laboral Kutxa:).AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK, bestalde, jasotako kopuru osoaren bikoitza justifikatu beharko du, hitzarmen honen xede diren zereginak egiteari lotutakoa.

Laugarrena: *Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, AIARAKO Udalak, AIARALDEA HEDABIDE TALDEKO “Aiaraldea Gaur” eta “Aiaraldea Hemen” komunikabideak diruz lagunduko dituenez, aitortza publikoa jasoko du, eta bi hedabideetan babesle gisa agertuko da.*

Udalaren logotipo normalizatua webgunearen eta hamabost egunetik behingo argitalpenaren kreditu-informazioarekin batera jarriko da (helbideak, egoitzak eta abar), hitzarmenaren indarraldian.

Bosgarrena: *Aiaraldea Hedabide Taldeak, informazioa lantzeko eta zabaltzeko orduan, denetariko edukia eta gaiak argitaratu ditu. Independentea, plurala, orekatua eta parte-hartzailea izango da. Beraz,*

alderdi politikoen eraginpean egotea saihestuko du, eta inpartzialtasuna zainduko. Eskualdeko gainerako elkarteek edo edozein herritarrek webgunean parte hartu ahal izango du.

Seigarrena: Iritziaren atalarekin lotuta, edozein herritarrek izango du eskubidea eta aukera hedabide horietan iritzia emateko. Hedabideek, alderdikierietatik urrun, iritzi politiko desberdinak dituzten pertsonak egotea ziurtatuko dute, denen oreka zainduz.

Zazpigarrena: Aipatutako espiritu ireki horri jarraikiz, hitzarmen honen xede diren hedabideetan denetatiko edukiak eta gaiak landu eta prestatuko dira, pertsonak errespetatuz, eta ez da irainik eta difamaziorik onartuko.

Zortzigarrena: "Aiaraldea Gaur" eta "Aiaraldea Hemen" euskara batuan idatziko dira, eta tartea emango zaio hizkuntza-aberastasunari eta eskualdeko aldaerei. Hizkuntza eredu bihur daiteke irakurleentzat; beraz, eredurik hoberena ematen saiatuko dira. Horrenbestez, gutxieneko hizkuntza-kalitatea ziurtatuko da.

Bederatzigarrena: AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK honako betebeharrak izango ditu:

a) Urteko kontuak ixtean, AIARAKo Udalarari jakinaraziko dizkio hitzarmen honen xede diren hedabideen jarduerak finantzatzeko jasotako diru-laguntza, laguntza eta baliabide guztiak.

b) Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatuko du.

c) AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK itxi den urtearen hurrengo urtarrilaren 31ra arteko epea izango du agiri hauek aurkezteko AIARAKo Udalaren erregistro orokorrean:

c.1) Itxi berri den urteko hitzarmena justifikatzeko agiriak:

- Hedabideen gastuen eta diru-sarreraren balantzea, itxi den urteari dagokiona.
- Itxi berri den urtearen jardueren memoria eta ebaluazioa, baita zinpeko deklarazio bat ere, diruz lagundutako jarduerak egin direla egiaztatzen duena.
- Justifikazioa, eta hala badagokio, itxi berri den urteari dagozkion ordaintzeko dauden kopuruen likidazio-eskaera.

c.2) Hitzarmenaren urte berriaren urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar diren agiriak:

- Urte berriko aurrekontuaren zirriborroa.
- Urte berriko jardueren proiektuaren zirriborroa.
- Arabako Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztatzen dutenak ordainketetan egunean dagoela.

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREkin sinatutako hitzarmena luzatzen bada, c.1) eta c.2) ataletan eskatutako agiriak aurkeztu beharko ditu, aipagai den ekitaldiari dagozkionak.

Jasota gera dadin, bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, helburu bakarrerako, eta haren bi alde sinatzen dituzte, aurrez aipatutako tokian eta egunean.

AIARAKO Udaleko alkatea AIARALDEA KOOP. ELK.-ko presidentea"

Batzordea jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du Udalbatzak erabaki hau hartzearen aldeko txostena egitea.

Lehenengoa.- Aiarako Udalaren eta AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAREN arteko 2018 ekitaldirako lankidetzaren hitzarmena onestea, euskarazko tokiko komunikabideak sustatzeko eta finantzatzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta bertaratutako Udalbatzako kideek, aho batez, erabaki dute Gizarte eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2018ko irailaren 11n eginiko saioko irizpena onestea, idatzita dagoen moduan.

7.- Onestea "Menagarai-Beotegiko hondakin-uren araztegiaren (Zuhatzako Ibaguen auzoan dago kokatuta) kudeaketa-, mantentze-, esplotazio- eta berritze-aginduari eta ondoren hori guztia Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoari agintzeari" buruzko 2018/05/17ko osoko bilkurako erabakia aldatzea.-

Udalbatzari gogorarazten zaio, 2018ko irailaren 11ko Hirigintza, Obra-zerbitzu eta Ingurumena Informazio Batzordean esan zen moduan, beharrezkoa dela Udalbatzak 2018ko maiatzaren 17ko bilkuran hartutako erabakia aldatzea; bertan, beste alderdi batzuen artean, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordearen eskaera onartzea erabaki zen, beharrezko kudeaketak egitekoa, kudeaketa-aginduaren bidez, Menagarai-Beotegiko hondakin-uren araztegiaren kudeaketa, mantentzea, esplotazioa eta berritzea onartzeko, bai eta aipatutako HUAri lotuta dagoen bigarren mailako sarearen edo sare baxuaren zati batena ere; ondorioz, berehala, Udalak kudeaketa-agindua eman zion Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoari (KUUP), hark onar zezan uraren ziklo osoa.

Erabaki hori aldatzeko beharra honek arrazoitzen du: kudeaketa-agindurako 15 urteko epea ezartzen zen, luzagarriak, 5 urteko epeetan, alde guztiak ados jartzen baziren. Dena dela, 2018ko uztailaren 24an Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoaren Batzar Nagusiak hartutako erabakian, Aiarako Udalarekin ezarritako hitzarmena zabaltzekoan Ibaguen auzoa ere sartzeko, 10 urteko epea ezartzen zen kudeaketa-agindurako.

Ondorioz, Menagarai-Beotegiko Batzordeari eskatu zitzaion horren inguruan Kontzejuan hartutako erabakia aldatzeko, Ibaguengo HUAren kudeaketa-agindurako epea 10 urterako ezarri (espedientean jasota dago erabaki aldatua).

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta bertaratutako Udalbatzako kideek, aho batez, erabaki dute 2018ko maiatzaren 17ko osoko bilkurako erabakia aldatzea, Ibaguengo HUA sartzeko KUUPi eskatutako kudeaketa-aginduak hamar urteko hasierako epea izateko.

8.- Honako hauen berri ematea: 2018ko apiril, maiatz eta ekaineko Kontaketa-aktak, Gastuen eta Diru-sarreraren Balantzea, Kartillen Egoera eta Kreditu Aldaketak. Udalbatzari jakinarazi zaio eguneko puntu honek aipatzen duen dokumentazio ekonomikoa hitzarmenarekin batera bidali dela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9.- Alkatetzaren dekretuen berri ematea. Jarraian, Udalbatzari 2018/304 eta 2018/400 zenbakien arteko Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, biak barne, eta hona hemen, laburtuta, haien edukia:

2018/304 ALKATETZA-DEKRETUA-- I.P.V. Lekualdaketa-gastuak ordaintzea.

2018/305 ALKATETZA-DEKRETUA-- ASASAM. 2018ko hitzarmenaren diru-laguntzaren % 90 ematea.

2018/306 ALKATETZA-DEKRETUA-- Etxaurreneko Lagunak elkartea. 2018ko hitzarmenaren diru-laguntzaren % 90 ematea.

2018/307 ALKATETZA-DEKRETUA--Onestea F/2018/9 zenbakiko fakturen zerrenda.

2018/308 ALKATETZA-DEKRETUA-- Salmantongo A. Batzordea.- Obra-lizentziaren eskaeran atzera egin duela ulertzea, ez baitu dagokion dokumentazioa aurkeztu.

2018/309 ALKATETZA-DEKRETUA-- Garobel Mendi Taldea.- Ez dutela justifikatu adieraztea eta 2017ko diru-laguntzaren zati bat eskatzea.

2018/310 ALKATETZA-DEKRETUA-- Aiara Bolatoki Taldea.- Ez dutela justifikatu adieraztea eta 2017ko diru-laguntzaren zati bat ordaintzea.

2018/311 ALKATETZA-DEKRETUA-- F J. I. L. - Informazio publikorako sarbide-esp.

2018/312 ALKATETZA-DEKRETUA- - Eskutxiko Ahotsak - Ez dutela justifikatu adieraztea eta 2017ko diru-laguntzaren zati bat ordaintzea.

2018/313 ALKATETZA-DEKRETUA-- Alkatetzaren ahalmenak eskuordetzea, oporrak direla eta.

2018/314 ALKATETZA-DEKRETUA-- Alkatearen 3. Kreditu Osagarria.

2018/315 ALKATETZA-DEKRETUA-- Onestea F/2018/10 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.

2018/316 ALKATETZA-DEKRETUA-- Gure Andere - 2017ko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.

2018/317 ALKATETZA-DEKRETUA-- Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkartea -2017ko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.

2018/318 ALKATETZA-DEKRETUA-- Ama Birgina Zuria.- 2017ko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.

2018/319 ALKATETZA-DEKRETUA-- I.G.P.- Baimena ematea Menagarain eraikin bat birgaitzeko proiektuaren I. faseko obrak egiteko.

2018/320 ALKATETZA-DEKRETUA-- Vitoria-Gasteizko Gotzaintza.- Udalaren obra-baimena ematea apaiztxeko beheko solairua birgaitzeko.

2018/321 ALKATETZA-DEKRETUA-- AIARA BILTOKIA KULTURA ELKARTEA. - 2017ko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiaraztea.2018/322 ALKATETZA-DEKRETUA-- F.A.O.- Hirigintza-ordena leheneratzeko espedientea ebartziz eta obra-baimenerako dokumentazioa aurkezteko eskatuz.

2018/323 ALKATETZA-DEKRETUA--Alday fundazioa. EALZ kudeatzeagatiko ekaineko fakturak onestea.

2018/324 ALKATETZA-DEKRETUA-- Udalerrian ikastaroak emateko zerbitzua esleitzeko kontratazio-espeditentea onestea.
2018/325 ALKATETZA-DEKRETUA-- G.G.T. 2018ko TMIZ onestea eta ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoaren behin betiko bajagatik.
2018/326 ALKATETZA-DEKRETUA-- MC. I.A. 2018ko TMIZ onestea eta ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoaren behin betiko bajagatik.
2018/327 ALKATETZA-DEKRETUA-- Elkarkidetza Pentsioak. 2018ko ekainari dagokion faktura.
2018/328 ALKATETZA-DEKRETUA-- 2018ko uztaileko nominen hileko txostena onestea.
2018/329 ALKATETZA-DEKRETUA-- 2018ko S. Isidro lehiaketako dietak eta sariak ordaintzeko abeltzainen zerrenda onestea.
2018/330 ALKATETZA-DEKRETUA--

R.M.Q. berritzeko espeditentea hastea.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.

2018/331 ALKATETZA-DEKRETUA-- P.J.I.I.- 2018ko HIRIKO OHZ ordainagiria kobratzea, eskudirutan.
2018/332 ALKATETZA-DEKRETUA-- Gizarte Segurantza. 2018ko ekainari dagozkion kotizazioak ordaintzea.
2018/333 ALKATETZA-DEKRETUA-- Alderdi politikoek ekarpen ekonomikoa, 2018ko uztaila.

2018/334 ALKATETZA-DEKRETUA-- Udalkideentzako ekarpen ekonomikoa onestea, 2018ko uztaila.
2018/335 ALKATETZA-DEKRETUA-- G.E.A.- Eskatutako alabak zaintzeko lan-utzialdia ematea.
2018/336 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.M.R.B.- Bitarteko funtzionario izendatzea, zerbitzuetako langilearen lan-utzialdia ordezkatzeko.
2018/337 ALKATETZA-DEKRETUA-- Goiener, S. Coop.-2018ko 2. hiruhilekoan jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.
2018/338 ALKATETZA-DEKRETUA-- Viesgo Energia SL.-2018ko 2. hiruhilekoan zorua okupatzeagatiko tasa likidatzea.
2018/339 ALKATETZA-DEKRETUA-- P.J.I.I.- 2018ko HIRIKO OHZren ordainagiriaren ordainketa itzultzea.
2018/340 ALKATETZA-DEKRETUA-- EDP COMERCIALIZADORA SAU- 2018ko 2. hiruhilekoan jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.
2018/341 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.D.G.O.- 2017an kiroldetako kuotak ordaintzeko diru-laguntzen ebatzpenaren kontrako berraztertze errekurtsoa ukatzea.
2018/342 ALKATETZA-DEKRETUA-- EAERI diru-laguntza eskatzea jarduera fisikoa sustatzeko.
2018/343 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.A.E.R. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoaren behin betiko bajagatik.
2018/344 ALKATETZA-DEKRETUA-- P.J.H. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoaren behin betiko bajagatik.
2018/345 ALKATETZA-DEKRETUA-- Aiara Kuadrilla. 2018ko 3. hiruhilekoari dagozkion hainbat ekarpen onestea.
2018/346 ALKATETZA-DEKRETUA-- Onestea F/2018/11 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
2018/347 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.I.G.F.- Desgaitasunak dituztenak garraiatzeko ibilgailuentzako aparkatzeko txartela ordezkatzeko.
2018/348 ALKATETZA-DEKRETUA-- AMA BIRJINA ZURIA - Ez dutela justifikatu adieraztea eta 2017ko diru-laguntzaren zati bat ordaintzea.
2018/349 ALKATETZA-DEKRETUA-- AIARAKO EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA - Ez dutela justifikatu adieraztea eta 2017ko diru-laguntzaren zati bat ordaintzea.
2018/350 ALKATETZA-DEKRETUA-- AIARAKO BILTOKIA KULTURA ELKARTEA- Ez dutela justifikatu adieraztea eta 2017ko diru-laguntzaren zati bat ordaintzea.
2018/351 ALKATETZA-DEKRETUA-- L.U.P.- Udalaren baimena ematea Luiaondon kokatutako eraikin bateko beheko solairuko egituren euskarriak finkatzeko.
2018/352 ALKATETZA-DEKRETUA-- I.A.G.- Udalaren baimena ematea Maroñon kokatutako etxebizitza berritzeko obrak egiteko.
2018/353 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.M.U.P.- Udalaren obra-baimena ematea Menagarain kokatutako lursail batean eraikuntza osagarriak eraisteko.
2018/354 ALKATETZA-DEKRETUA-- J.M.F. 2018ko TMIZren ordainagiriaren zati bat itzultzea, autoaren behin betiko bajagatik.
2018/355 ALKATETZA-DEKRETUA-- Elkarkidetza Pentsioak. 2018ko uztailari dagokion faktura onestea.
2018/356 ALKATETZA-DEKRETUA-- E.H.L. Garraio-gastuak ordaintzea.
2018/357 ALKATETZA-DEKRETUA-- D.F.A. 2018ko 2. hiruhilekoko PFEZ atxikitzea.
2018/358 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.B.L.A. 2017ko TMIZren ordainagiria itzultzea, bidegabe kobratzeagatik.

2018/359 ALKATETZA-DEKRETUA-- Murgako A. Batzordea.- Espediente administratibo baten informazio publikora sarbidea ematea.

2018/360 ALKATETZA-DEKRETUA-- AIARA BOLATOKI TALDEA – 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/361 ALKATETZA-DEKRETUA-- AMA BIRJINA ZURIA - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/362 ALKATETZA-DEKRETUA-- ETXAURREN IKASTOLAKO IGE - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/363 ALKATETZA-DEKRETUA-- VALLE DE LLANTENO ARTISTA- ETA KULTURA-ELKARTEA – 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/364 ALKATETZA-DEKRETUA-- SANTIAGO APOSTOL ERRETIRATUEN ELKARTEA – 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/365 ALKATETZA-DEKRETUA-- PEREGAÑA ELKARTE SOZIOKULTURALA - RETES DE LLANTENO ERRETAIAR – 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/366 ALKATETZA-DEKRETUA-- C.D. BOLOS LEKUBATXE -2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/367 ALKATETZA-DEKRETUA-- ESKUTXI AHOTSAK AIARAKO EMAKUMEEN TALDEA - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/368 ALKATETZA-DEKRETUA-- GAROBEL MENDI TALDEA – 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/369 ALKATETZA-DEKRETUA-- HONTZURIA ARGAZKI KLUBA -2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/370 ALKATETZA-DEKRETUA-- ITZALDE ABESBATZA - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/371 ALKATETZA-DEKRETUA-- MURGAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/372 ALKATETZA-DEKRETUA-- KILI-KILI ARESPALDITZAKO ELKARTE SOZIOKULTURALA - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/373 ALKATETZA-DEKRETUA-- MENAGARAIIKO EMAKUME TALDEA - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/374 ALKATETZA-DEKRETUA-- AIARAKO EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/375 ALKATETZA-DEKRETUA-- GURE ANDERE - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/376 ALKATETZA-DEKRETUA-- Alderdi politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2018ko abuztua.

2018/377 ALKATETZA-DEKRETUA-- 2018ko abuztuko nominen hileko txostena onestea.

2018/378 ALKATETZA-DEKRETUA-- I.J.V.O.- Obrak egiteko udal-baimena ematea etxebizitza bateko teilatua birgaitzeko.

2018/379 ALKATETZA-DEKRETUA-- Retes de Llanteno A. Batzordea.- Udalaren obra-baimena ematea hilerria konpontzeko eta zenbait jarduketa egiteko

2018/380 ALKATETZA-DEKRETUA--Gizarte Segurantzza. 2018ko uztailleko kotizazioak aurkeztea.

2018/386 ALKATETZA-DEKRETUA-- Arespalditzako A. Batzordea. - Obretarako lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/381 ALKATETZA-DEKRETUA-- Lujoko A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/382 ALKATETZA-DEKRETUA-- Añesko A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/383 ALKATETZA-DEKRETUA-- Costerako A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/384 ALKATETZA-DEKRETUA-- Erbiko A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/385 ALKATETZA-DEKRETUA-- Madariako A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/386 ALKATETZA-DEKRETUA-- Arespalditzako A. Batzordea. - Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/387 ALKATETZA-DEKRETUA-- Maroñoko A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/388 ALKATETZA-DEKRETUA-- Ozekako A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/389 ALKATETZA-DEKRETUA-- Lejarzoko A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/390 ALKATETZA-DEKRETUA-- Murgako A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/391 ALKATETZA-DEKRETUA-- Alday fundazioa.- EALZ kudeatzeagatikozuztaileko fakturak onestea.

2018/392 ALKATETZA-DEKRETUA-- Izoriako A. Batzordea.- Obretarako udal-lizentziaren espedientea dela-eta, dokumentu gehiago eskatzea.

2018/393 ALKATETZA-DEKRETUA-- Luiaondoko Padura 21 helbideko etxejabeen elkarte.- Obrak egiteko udal-baimena ematea eraikineko fatxada konpontzeko.

2018/394 ALKATETZA-DEKRETUA-- Aiala Txirringularien Elkarte - 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/395 ALKATETZA-DEKRETUA-- Iñaki Isasi Taldea – 2018ko diru-laguntza ematea, % 80a ordaintzeko agindua.

2018/396 ALKATETZA-DEKRETUA-- Onestea F/2018/12 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.

2018/397 ALKATETZA-DEKRETUA- Dorreko Pilota Kluba - 2017ko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

2018/398 ALKATETZA-DEKRETUA-- K.I.S.M.- Udalaren obra-baimena ematea.

2018/399 ALKATETZA-DEKRETUA-- M.D.S.- B motako arma-txartela ematea.

2018/400 ALKATETZA-DEKRETUA-- AFARI diru-laguntza eskatzea, Arabako udalerriak biztanlerik gabe geratzea saihesteko diru-laguntzen deialdian.

Nerea Goti Valle (EH-BILDU) zinegotzi andreak hitz egin du, eta galdetu du ea zeri egiten dioten erreferentzia zenbait dekretuk, administrazio-batzorde batzuei agiri osagarriak eskatzen dizkietenak, obra-baimenen eskaerekin lotuta.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du kasu askotan dokumentazioa osatu gabe daukatenak izango direla, baina uste du gehienak jarduera-baimenekin lotuta daudela.

Nerea Goti Valle (EH-BILDU) zinegotzi andreak 2018/320 Alkatetza Dekretuaren gainean interesa erakutsi du, Vitoria-Gasteizko Apezpikutzari apaizetxearen beheko solairua birgaitzeko Udalaren obra-baimena emateari buruzkoa.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du obra-baimena biltegi txiki bat egiteko dela.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak galdetu du ea zein armaren ingurukoa den b) motako arma-txartela, 2018/399 dekretuan agertzen dena.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak zehaztu du ez duela halako dekretu askorik sinatu, baina orain gutxi adierazi zitzaiola Udalaren eskumena zela.

Esteban Hernando Landa (EH-BILDU) zinegotzi jaunak adierazi du aire konprimatukoak direla.

Parte-hartzeak bukatuta, Udalbatzak aipatutako dekretuen berri izan du.

10.- Galde-eskeak.-

- Esteban Hernando Landa (EH-BILDU) zinegotzi jaunak 2017ko maiatzaren 8ko abal-eskaeraren inguruan galdetu du, ebazteko baitago oraindik.
Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Kuadrillako arkitekto teknikoa ari dela txostena egiten horren inguruan.
- Nerea Goti Valle (EH-BILDU) zinegotzi andreak beharizan bereziak dituzten zenbait umeren eskola-garraioaren inguruan sortu den arazoari buruz galdetu du.
Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du tartea utzi dela eskolako Zuzendaritzak Hezkuntza Sailarekin hitz egin dezan, eta Hezkuntza-ordezkariekin ere harremanetan jarriko dela. Beraz, adierazi du Hezkuntza Sailak eskolari eta guri erantzun arte itxarongo zaiola.
Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du arazoaren jatorria direla beharizan bereziak zituzten hezitzaileek eskatutako lan-hobekuntza batzuk; horien artean, garraioan joatea ez behartzea zegoen, eta onartu egin zen, ondorioez jabetu gabe. Adierazi du Etxaurren bi kasu daudela.
Nerea Goti Valle (EH-BILDU) zinegotzi andreak adierazi du horren berri eman behar zela asteartean, gai horren inguruko Udalbatzako Talde Politikoen Batzordean, eta ez jakitea guraso zirelako.
Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du berak arazoaren berri atzo izan zuela; beraz, batzordeak jada eginda zeudenean. Gehitu du Hezkuntza Sailak emandako erantzunaren berri izatean jakinaraziko zaiela.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura bukatutzat eman du hamalauak eta hogeita bost direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemezortziko irailaren hamalauan.

O. E.:

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: M^a Carmen Rojo Pitillas.